

Bureau Veritasek emana

**EROSKIK CLEAN SITE ZIURTAGIRIA ESKURATU DU,
COVID-19ARI SEGURTASUN ETA GARBITASUN
JARDUNBIDE ONEKIN EKITEN DIOLA ERAKUSTEN
DUENA**

- **Horrek egiaztatzen du egoitzen garbiketa eta desinfekzio protokoloak behar bezala aplikatzen direla eta behar diren segurtasun neurriak hartzen direla**

Elorrio, 2020ko uztailaren 23a.- [EROSKI](#)k [Bureau Veritas](#)en *Clean Site* ziurtagiria eskuratu du bere denda guztietarako. Maiatzean abiatu zuen prozesua, bere saltokietan garbitasun eta desinfekzio protokoloak behar bezala aplikatzen direla ziurtatzeko, orobat COVID-19aren aurka segurtasun neurri egokiak hartzen direla bermatzeko, bai langileei begira eta bai bezeroei begira. Ebaluazioan, Bureau Veritasek desinfekzioa, segurtasuna eta higiena nola egiten diren aztertu du pandemiaren ondorioz indarrean den legedia kontuan izanda eta osasun agintari baimenduek prebentzio arloan emandako gomendio askotarikoak aintzat hartuta.

"Pandemiaren hasieratik ingurune seguruak eduki behar genituen gure bezeroentzat eta langileentzat. Hori izan da gure lehentasuna. Bureau Veritasen eskutik (kanpoko hirugarren parte independente gisa) Clean Site zigilua lortu izanak berresten du gure dendetan segurtasun protokoloak eta haien aplikazioa behar bezala egiten ari direla. Gure egoitzen garbitasun prozesuak berrikusi eta indartu ditugu, eta desinfekzioa areagotu dugu dendako gune kritikoetan; gainera, prebentzio neurri gehigarriak hartu ditugu; besteak beste, ordainlekuetan pantailak jartzea, langileei maskarak eta aurpegiko pantailak ematea eta gure dendetan sartzan den jende kopurua kontrolatzeko protokoloa aplikatzea, osasun agintariak finkaturiko gutxieneko segurtasun distantzia gordetzeko", azaldu du EROSKIren Sare Komertzialeko zuzendari nagusiak, Rosa Carabelek.

"Clean Site ziurtagiriak erakusten du EROSKIk nolako konpromisoa duen bere lantaldeekin eta bezeroekin, egoitzetako eta dendetako segurtasuna eta garbitasuna indartu baititu. Bureau Veritasek egin dion ikuskaritzan, protokoloen eraginkortasuna egiaztatu dugu baita dendetan desinfekzio eta garbitasun prozesuak behar bezala aplikatu dituztela ere", esan du Bureau Veritasek Espainian eta Portugalen duen Ziurtagiri zuzendariak, Monica Botasek.



Bureau Veritas buruz

Bureau Veritas liderra da munduan ikuskaritzak, ziurtapenak eta saiakuntzak egiten. Taldea 1828an sortu zen; 78.000 langile inguru ditu, eta 1.500 bulego eta laborategi mundu osoan. Bureau Veritasek bezeroei laguntzen die beren zereginak hobetzen, zerbitzu eta irtenbide berritzaileen bidez; xedea da bermatzea beren aktiboek, produktuek, azpiegiturek eta prozesuek kalitate, osasun eta segurtasun estandarrak eta arauak betetzen dituztela, ingurumena babestuz eta gizarte erantzukizunez jokatzuz. Bureau Veritasek Parisko Euronext burtsan kotizatzen du, CAC Next 20 indizean.

EROSKIri buruz

Kooperatiba izaerako Espainiako lehen banaketa taldea da EROSKI, eta elikadura arloan erreferentziatzko operadorea iparraldean; zehazki, Galizian, Asturiasen, Kantabrian, Euskal Autonomia Erkidegoan, Errioxan, Nafarroan, Aragoian, Katalunian eta Balearretan. 1.645 saltokiko sare komertziala du. Saltoki motari dagokionez, baditu supermerkatuak, hipermerkatuak eta cash & carry-ak eta, horretaz gain, gasolindegia, optikak, bidaia bulegoak eta kirol ekipamendurako dendak ere bai. Sei milioi Bazkide Bezero baino gehiago ditu, eta 32.000 bazkide kooperatibista, langile eta frankizia-hartzaile.

Informazioa:

<p>Bureau Veritas - Komunikazioa Tel: 91 270 97 92 comunicacion.swe@bureauveritas.com www.bureauveritas.com </p>	<p>EROSKI Komunikazio Korporatiboa Tel: 946 211 214 comunicacion@eroski.es Online prentsa aretoa Prentsa bulegoa - Consejeros del Norte JOANA G. LANDAZABAL / EDURNE IZQUIERDO Tel: 944 158 642</p>
--	--